

1568

64/2006 DEKRETUA, martxoaren 14koa, Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erregulazioa ezartzen duena.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak 2002-2020, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko ekainaren 4an onetsi zuenak, dituen helmugen artean jasotzen ditu: «Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasun-garriak izan ditzagun bermatzea», «Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua bultzatzea» eta «Klima-aldaketaren eragina mugatzea». Hori lortzeko adierazten du lehentasunezko helburuetako bat ekoizpen garbirako sistemak sustatzea dela. Halaber, adierazten du helmuga horiek benetan jadesten direla lortzeko baldintza eta tresnetako bat merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea izango dela, batez ere (bereziki) ingurumen-helmuga berriatarantz zuzendutako zerga-politika baten bitartez.

Bestalde, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak daraman euskal energia-politikak ingurumen-aldagaia ere kontuan izan du. Izan ere, «Euskadiko Estrategia Energetikoa (3E-2010). Energia-garapen iraunkorrenantz» izeneko planak 2010era arte energiaren eta ingurumenaren arloetan planteatu diren helburuak gauzatzeko energia-sisteman implikatuta dauden agenteen oinarrizko jardunbideak ezartzen ditu. Helburu horiek gauzatzera bideratutako jardunbide estrategikoaren artean aipagarriena honako hau dugu: «Oro har, eta energia-intentsitateari dagokionez, energia-konsumoa muritzeko joera duten sektore guztietan eraginkortasun energetikoko jardunak areagotzea, Europar Batasunean ezarritako helburuekin bat etorri.»

Testuinguru horretan, egokitzat jotzen da ingurumenaren ikuspuntutik lehentasunezkoak diren teknologiak identifikatzea, sektore publikoak bultzatu ahal izan dezan teknologia horiek ekoizpen-prozesuetan sartzear.

Horretarako, teknologia horiek guztiak zerrenda batean biltzea sustatuko da, Teknologia Garbien Euskal Zerrendan, alegia. Zerrenda dinamikoa izan dadila nahi da, alidian-aldian eguneratu daitekeena; horrekin nahi dena da zerrendan jaso daitezela soilik ingurumenaren aldetik eragimen handiena duten teknologiak, eta zerrendatik kanpo utzi ahal izan daitezela ingurumenaren ikuspuntutik begiratuta hobeak diren beste teknologia alternatibo batzuek dagoeneko gaindituta dauden teknologiak. Bereziki, enpresek teknologia jakin bat Teknologia Garbien Euskal Zerrendan barnera dадin lortzea lehentasunezko irizpidetzat hartuko da zergei buruzko arautegia aplikatzeko orduan, baita apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuak ingurumena babestera bideratuta dauden inbertsioen alde ematen dituen diru-laguntzak esleitzeko orduan ere.

Zerrendan zein teknologiak egon behar duten hautatzeko, prospektiba-lana egin beharko du Ingurumen

1568

DECRETO 64/2006, de 14 de marzo, por el que se establece la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020, aprobada por Consejo de Gobierno de 4 de junio de 2002, recoge entre sus metas las de «Garantizar un aire, agua, suelos limpios y saludables», «Promover una gestión responsable de los recursos naturales y de los residuos» y «Limitar la influencia del cambio climático». Para conseguirlo señala como uno de sus objetivos prioritarios el de promover sistemas de producción limpia. Igualmente señala que una de las condiciones e instrumentos para lograr el efectivo cumplimiento de sus metas será la incitación al mercado para actuar a favor del medio ambiente, singularmente a través de una política fiscal orientada hacia las nuevas metas ambientales.

Por otra parte, la política energética vasca liderada por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, tiene también en cuenta la variable medioambiental. De hecho, la «Estrategia Energética Euskadi 3E-2010, hacia un desarrollo energético sostenible» establece las directrices básicas de actuación del conjunto de agentes implicados en el sistema energético para alcanzar los objetivos energéticos y ambientales planteados hasta 2010. Entre las líneas estratégicas de actuación orientadas al cumplimiento de dichos objetivos, cabe destacar la relativa a «Acentuar las actuaciones en eficiencia energética en todos los sectores tendentes a reducir el consumo energético en términos globales y de intensidad energética, de acuerdo con los objetivos establecidos en la Unión Europea».

En este contexto, se considera oportuno identificar aquellas tecnologías prioritarias desde la óptica medioambiental con objeto de que la introducción de las mismas en los procesos productivos pueda ser promocionada desde el sector público.

Para ello, se promueve la agrupación de dichas tecnologías en un listado, el Listado Vasco de Tecnologías Limpias. Se pretende un listado dinámico, actualizable periódicamente para incluir en cada momento solo las tecnologías medioambientalmente más eficientes y excluir las que se hubieran visto superadas por tecnologías alternativas superiores desde un punto de vista ambiental. En particular, la inclusión de una determinada tecnología en el Listado de Tecnologías Limpias podrá tenerse en cuenta como criterio preferente, tanto en la normativa tributaria como en el Decreto 91/2002, de 23 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente.

La selección de las distintas tecnologías será el resultado de una labor de prospectiva llevada a cabo por

eta Lurralte Antolamendu Sailak, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan; lan hori egite aldera, Ingrumen eta Lurralte Antolamendu Sailak sail horri zein Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako sozietate publikoetako ordezkarien laguntza eta lankidetza izango du, bai eta Zerga-Kideketarako Sailarena ere. Dekretuaren xede nagusia da Zerrenda arautzen duen esparrua definitzea, eta xede horren zehaztapena da Zerrendan sartuko diren teknologiak hautatzeko irizpideak, metodologia eta baldintzak finkatzea.

Horri jarraiki, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikuluak eta Ingrumen eta Lurralte Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, Ingrumen eta Lurralte Antolamendu sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko martxoaren 14an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, ondokoak

XEDATU DUT

1. artikulua.— Xedea

Dekretu honen xedea Teknologia Garbien Euskal Zerrenda arautzea da, zertarako-eta ingurumenaren ikuspegitik lehentasuna duten teknologiak zeintzuk diren identifikatzeko. Horrela, zerga-politika horietara bideratu ahal izango da, bi ildotan: batetik, zerga-neurrien bidez teknologia horiek enpresen ekoizpen-prozesuan barneratzea sustatuko da; eta, bestetik, gastu-politika ezarriko da.

Horrela, teknologia garbia izango da azken xedetzat ingurumen-hobekuntzaren bat lortzea xede duen edozein ekipamendu edo instalazio; soilik joko dira teknologia garbitzat hobekuntza eragiten duen ekipamendua edo hobekuntza eragiten duten instalazioko osagaiak.

Bereziki, enpresek teknologia jakin bat Teknologia Garbien Euskal Zerrendan barnera dadin lortzea lehen-tasuneko irizpidetza hartuko da zergei buruzko arau-tegia aplikatzeko orduan, baita apirilaren 23ko 91/2002 Dekretuak ingurumena babestera bideratuta dauden inbertsioen alde ematen dituen diru-laguntzak esleitzeko orduan ere. Zerrendan oinarrituta ematen diren zerga-pizgarriak bat etorriko dira Batzordeak 2001eko urtarrilaren 12an emandako 69/2001 (EE) Erregelamenduan ezarritakoarekin; Erregelamendu hori EE Tratatu 87. eta 88. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da.

2. artikulua.— Teknologiak hautatzea, horiek Zerrendan sartzeko

1.— Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuko diren teknologiak hautatzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingrumen eta Lurralte Antolamendu Sailak prospeksioko aktiboa egingo du, Industria, Merkataritza eta Turis-

el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, en colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo, y contará con el apoyo y colaboración de representantes de sociedades públicas adscritas a ambos Departamentos, así como del órgano de coordinación tributaria. El Decreto tiene como objeto principal la definición del marco regulador del listado y se concreta en el señalamiento de los criterios de selección, la metodología y las condiciones para la inclusión de las tecnologías.

En su virtud, y en el ejercicio de la competencia que atribuye el artículo 26.4 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, así como el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 14 de marzo de 2006,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación del Listado Vasco de Tecnologías Limpias, a efectos de identificar las tecnologías prioritarias desde la óptica medioambiental hacia las cuales orientar la política fiscal en sus dos vertientes; tanto en el sentido de incentivar la introducción de dichas tecnologías en el proceso productivo de las empresas a través de medidas de carácter tributario, como mediante la política de gasto.

En este sentido, se define como tecnología limpia aquel equipo o instalación que tenga como fin último la obtención de la mejora ambiental, incluyéndose como tal, sólo el equipo o componentes de la instalación que generen dicha mejora.

En particular, la inclusión de una determinada tecnología en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias podrá tenerse en cuenta como criterio preferente en la normativa tributaria, así como criterio prioritario de adjudicación en el Decreto 91/2002, de 23 de abril, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente. Los incentivos fiscales que se otorguen con referencia al listado se ajustarán a lo establecido en el Reglamento (CE) n.º 69/2001 de la Comisión, de 12 de enero de 2001, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado CE a las ayudas de mínimis.

Artículo 2.— Selección de tecnologías para su inclusión en el listado.

1.— La selección de tecnologías para su inclusión en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias se realizará mediante prospección activa por parte del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Go-

mo Sailaren lankidetzarekin, eta hurrengo artikuluetan zehazten diren metodología eta irizpideekin bat.

2.– Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuko diren teknologiak hautatzeko prozesua Batzorde Tekniko batek egingo du, eta, bertan, ondoko erakundeeetako ordezkari bana egongo da:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza.
- IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietae Publikoa, SA.
- Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietaea (SPRI).
- Energiaren Euskal Erakundea (EEE).
- Zerga-Kideketarako Saila.

3. *artikulua*.– Teknologia Garbien Euskal Zerrenda prestatzea eta eguneratzea

1.– Aldian-aldian onartuko eta eguneratuko dira Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuta dauden teknologiak Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren agindu bidez, Dekretu honetako 4. artikuluan ezartzen diren irizpide teknikoak kontuan hartuta. Zerrenda horrek ondoko informazioa jasoko du:

- Ekipamenduaren edo instalazioaren izen generikoa.
- Identifikazio-kodea.
- Eragiten duen ingurumen-hobekuntza.
- Teknologiaren definizioa; horren funtzionamenduari buruzko azalpen laburra.
- Teknologia aplikagarria zaien jarduerak edo instalazioak.
- Teknologiak hautatzeko irizpideak.

2.– Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren onespaina eta eguneratzea ezartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta agindu horretan bertan ezartzen den moduan errekrutitu ahal izango da.

3.– Hautatzeko irizpideak

Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartuko diren teknologiak ebaluatu eta hautatzeko, hurrengo irizpideak hartuko dira aintzakortzat:

1) Teknologiak bere ezaugarri teknikoen definizioa izan behar du, erraz identifikatu ahal izan dadin bai ingurumen-osagaia, bai teknologia hori zein sektoretan aplikatu ahal izango den.

2) Eskala industrialean garatutako teknologia izan behar da eta merkatuan erabilgarri egon behar da.

3) Teknologia horrek aplikagarria den sektoreetan duen ezarpen-maila. Balorazio positiboa jasoko du sektore horietan dagokion teknologiak ezarpen urria iza-teak.

bierno Vasco, con la colaboración del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, de conformidad con la metodología y los criterios establecidos en los artículos siguientes.

2.– El proceso de selección de tecnologías para su inclusión en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias se realizará por un Comité Técnico compuesto por un representante de cada una de las siguientes entidades:

- Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.
- Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE, S.A.
- Sociedad para la Promoción y Reversión Industrial (SPRI).
- Ente Vasco de la Energía (EVE).
- Órgano de Coordinación Tributaria.

Artículo 3.– Elaboración y actualización del Listado Vasco de Tecnologías Limpias.

1.– La aprobación y actualización de las tecnologías en el seno del Listado Vasco de Tecnologías Limpias se realizará periódicamente por Orden de la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, a la vista de los criterios técnicos establecidos en el artículo 4 del presente Decreto, y contendrá la siguiente información:

- Denominación genérica del equipo e instalación.
- Código identificativo.
- Mejora ambiental que induce.
- Definición de la tecnología con breve explicación sobre su funcionamiento.
- Actividades o instalaciones a las que resulta aplicable la tecnología.
- Criterios de selección de las tecnologías.

2.– La Orden que establezca la aprobación y actualización del Listado Vasco de Tecnologías se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y será recurrible en los términos establecidos en la propia norma.

3.– Criterios de selección.

La evaluación y selección de las tecnologías a incluir en el Listado Vasco de Tecnologías Limpias se realizará tomando en consideración los siguientes criterios:

1) La tecnología debe tener una definición de sus características técnicas, de manera que sea fácilmente identificable el componente ambiental y los sectores en que es de aplicación.

2) Tecnología desarrollada a escala industrial y disponible en el mercado.

3) Grado de implantación en los sectores en que es de aplicación. Tendrá valoración positiva una escasa implantación de la tecnología en dichos sectores.

4) Ingurumen-inpaktu osoari dagokionez inpaktu nabarmen hobeak duen beste teknologiarik ez dadila egon erabilgarri.

5) Teknologiaren transferigarritasuna; balorazio positiboa jasoko du teknologia hori instalazio potentzial askotara transferitu ahal izateak.

6) Prebentziozko teknologiek lehentasuna izango dute, prozesu amaierako teknologien aurrean.

7) Teknologiaren azken helburua ingurumen-hobekuntza izan behar da. Irizpide hori kontrastatzeko, kuantitatiboki eta kualitatiboki adierazi eta zehaztu behar da teknologia hori aplikatzearen ondorioz zein ingurumen-inpaktu eta zein ingurumen-hobekuntza eragiten den ingurumeneko hainbat alderditan (airea, ura, hondakinak, lurzorua, energia eta zarata).

8) Indarrean dagoen ingurumenaren arloko legediak ezartzen dituen ingurumen-balioak baino hobeak erregistratu behar ditu.

9) Inbertsioa txikia izan behar da, dekretua garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera.

10) Teknologiaren amortizazio-aldia bat etorri behar da Ingurumena babesteko estatuko laguntzei buruzko Europako Erkidegoko jarraibideekin (2001/C37/03).»

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.— Ahalmena eman zaio Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuari Dekretu hau zuzen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko martxoaren 14an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS

4) Que no existan tecnologías disponibles que tengan un impacto ambiental total significativamente mejor.

5) Transferibilidad de la tecnología, valorándose positivamente que el número de instalaciones potenciales a las que pueda transferirse la tecnología sea elevado.

6) Preferencia por las tecnologías preventivas frente a las de fin de proceso.

7) Que el fin último de la tecnología sea la mejora ambiental, contrastando este criterio mediante la indicación y especificación cuantitativa y cualitativa del impacto y la mejora ambiental derivado de su aplicación en los diferentes aspectos ambientales, aire, agua, residuos, suelo, energía y ruido.

8) Registrar valores ambientales mejores que los establecidos por legislación medioambiental en vigor.

9) Inversión mínima en los términos establecidos en la normativa reglamentaria de desarrollo.

10) Período de amortización de la tecnología de acuerdo con las Directrices Comunitarias sobre ayudas estatales a favor del medio ambiente 2001/C37/03.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Se faculta a la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda.— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,
ESTHER LARRAÑAGA GALDOS.